

INDALEKI OJANGUREN

GERTATUAK ETA ATERALDIAK (1)

Por JUAN SAN MARTIN

Aintziña asi zan Indaleki Ojanguren D'Agerrearen artetik bizi izaten. Izan be, eibartarrik gehienak bezela, zirt edo zart egiteko gizona zan Indaleki. Fotografiaren etorkizuna illun egoan artean, horretara itzuli zan buru-belarri gure gizon hau.

Gaurko teknikak benderatu gaberik zegoen denboran, fotografiatzeko makinak ez euken oingo aukerarik nahi zan moduan ataratzeko. Horregatik, "anpladora"rik ezagutzen ez zan denbora haretan, Madrilgo "ABC"koak arrituta egoazen Ojangurenek atarutzen zituan erretratu ederrekin. Eibarren bertan asmatutako teknikaren bat edo ezarri ete zeutsan, "ABC"koak bialdu eben euren fotografu ezaguna zan Duque jauna.

—Zelan konpontzen zara zu pelotariak naiz foballistak holako ondo ataratzeko?

—Tripodiakin.

Bera bakarrik zan artian, nahiz pelota partidua edo nahiz fobail jokua, golditzen zituana bere erara fotografiatzeko .

Ojangurentzat dana izan da interesantea. Berak erretratau ez dabenik ez dago. Horacio Sarasketak bere lapiz azkarrakin karikaturia egin zeutsanian, azpikaldean hau ipini zeutsan: "Honegandik guztiok pasatu giñan".

Bai. Hala da. Eibartar guztiok gaitu bere artxibuan, aldeko eta kontrako, kolorieri begiratzeko bautizuan, komunio nagusian edo ezkontzan ez bada, karneterako erretratuan, Aste Santuko prozesiñoan edo aratostietan (ihauterietan) izango da.

Garai batian, sarri ebillen Bizkaiko errietan elizak, torre-zaharrak eta abar, danak fotografiagintzan. Leku askotan aditzera emoten zeutsen, beste jaun bat be baebillela era-bereko fotografiak atarutzen. Lehelengo aldiz agertzen jakin kompetentzia bat. Emoten zeutsezen aztarranetatik, errena eizan. Eta, egun batean hor nun agertzen dan, Eibarko bere estudioara, tajura haretako gizo bat. "Hemen dok nere kontrodixua", esan ei eban Indalekik berekautan. Eta, igarri. Bera zan. Jabier de Ybarra jauna. *Catálogo de Monumentos de Vizcaya* egiten ebillela. Ybarra jaunari be berdintsu gertatzen jakon; zoian leku guztietan berba egiten zeutsen eibartarragaitik, eta ezagutzeko asmuz joan zan Eibarrera. Zorio-

nezko ezagutza izan zan bientzat. Ojangurennek bere artxiboa erakutsi zeutsan, arrituta esan el zeutsan Ibarak: “Es increíble el trabajo que usted ha realizado!”. Eta; Ojangurennek erantzunez: “Ay”, Javier, cuánto trabajaría yo si no tuviera que trabajar.”

Negozioetan berriz, zintzoa. Ez eban gehiagorik emongo, ez da gutxiagorik artu be.

Behin, bezero bati, kontuak zurutuz: “Kanbixuak egiteko ez jaukat errial-bikorik. Autsa pezetia eta euk ekak errial-bikoa”.

—Neuk be ez daukat baiña errial-bikorik.

—Orduan, zer egin?

—Artizu zeuk pezetia, eta urrenguan emongo deustazuz errial biak.

—Baiña, ni ahaztuko nok, eta hiri emoten ba deuat be hi ahaztuko haiz. Eta, hara, kara-kurutuz egiñaz jokatu eta kitto.

Hola erabakitzen ekian kanbio kontua.

Ba ziran baiña erabagirik ez euken gauzak be. Pobria aberastu leike, eta aberatsa pobretu be bai; baiña zatarrari... zer? Gaiñera, zirujia-estetikarrik ez egoan denboran zer egin?

Bere kulpaz ez bada be, polita ez zan neskatilla bat erretratu eske joan zan batian; fotografiak ikusi zituanerako esan zeutsan: “Ene!, Ojanguren; zelako zatarto atara nozun. Ze itsusi”.

—Ez uste makiñian faltia danik. Hemen ez dago tranparik.

Tola de Gaytán markesak sarri eskribitzen zeutsan halako edo holako eskudoren fotografia eskatuaz. Eta, elizgizon eta tituludunentzat alerjia eukan eibartar adarjotzaille bat enteratu zanian, esa zeutsan:

—Konke, euk pe markesekin tratatzen duala, e?

—Nik ez eurekin. Eurak nerekin.

Aralargo San Migelen gertatua. Aita kaputxino batek predikatzen ei eban, ez dakit zer jairen eleizkizunetan, ohitura dan baino errezu gehiagorekin, eta eleizkizun ondorean bazkaria. Baina bazkari honetan zeharo bestaldera gertatu ei zan; janaria urri. Gure fotografua ez ei egoan bere onean hain neurririk gabeko errezu luzeen ondoren hain bazkari laburra egiteaz. Guztien ondorean eldu ei zan han ziraneri fotografiak ataratzeko ordua —ze eginkizun honetarako eruan eben Indaleki—. Argazkiok ondo ataratzeko, argiak onduen joten eban alderdiaren bila asi ei zan. Aukeratu eban lekua, baina fraile bizarduna kontrako eritziaz asi ei zan bere ustea ipini nahirik, argirik egokiena zaharretara ipinita egoala azalduaz. Kontradiziño haretatik urten ahal izateko, Ojankurennek bere nortasuna agertu ei zeutsan, esanez: “Zu arduratu zaite arimentzako argiarekin. Ze, hemen, ni naiz fotografua, eta zu frailia”.

Ojangurenen gertakizunekin ez naiz bape arritzen. Urte asko dira, zazpi-garren ehun mendiko konkursoa amaitu ebalta eta, artikulu bat egin neban bere zenbait gauza kontatuaz. Nik “La Voz de España”n argitaratu eta handik egun gutxira beste periodiku batzuetan etorren arikulu bera, nere baimenik barrik eta nere izenik barik, baiña gatz-ozpinduaz. Orduantxe bai benetan sinistu

nebala “Fotografo Aguila” zala, askok hola apropos deitzen ba zeutsen be. Ba, bere egaztada ez zan gelditzen, periodikutik periodikura, gelditzeke ebillen. Egilearen eskubideak (= derechos de autor) ez dakit nor kobratuko zituan; nik behintzat ez neban txakur-txiki bat bera be ikusi. Baina bai txakurrak galanta nere baimenik barik artikulu harekin jabetu zirenak. Ha! ze zakurrak!

Artikulua nundik nora ebillen, ari galdu neban. Handik denpora askora, erriko-seme adiskide batek ekarri eustan Madrilgo 7 *Fechas*, artikulu berari konponketa dotoriak egin da. Ez dakit ega luziak ala hainbeste aldaketak, lumok ondo aldatu eutsezen gure “arranua”ri, hainbestian eze, 7 *Fechas*-en, erretratu orde dibujua ekarren. Eta, zelakoa? Indaleki Ojanguren mendi punta batian, gure “Fotógrafo Aguila”ri tokatzen jakon moduan, baiña buruan kordobesen kapelia eroiala, berak erabiltzen eban txapelaren orde.

Horrek ikusita ezerk ez nau arritzen.

Oraindik ixa bat nintzan Eibarko Club Deportivo-an mendizaleen sailleko karguan mengoala. Illuntzi batian eldu zan nere eskura konkursorako aditzera emoteko eskribitzen diran papel horretariko bat. Ojandurenena zan. Astean Urko (791 metroko mendia) puntara igo zala-ta. Alperrik izan fotografutza libertade askoko ofiziu, eibartarrentzat beti izan da sagraua astegunian egunerditxo bat biharrera barik galtzia. Horretan, hor nun sartzen dan Ojanguren bera. “Zer, Indalezio; astegun buru-zurixan de Urkora?”.

—Bai; Ermura joan biharra najeukan eta bide-batez Urko puntara igo najuan.

Hori entzun da, zelan ez sinistu ega egiteko be gauza ez zala?

(Eibartik-Ermura iru kilometro t’erdi dare kamiñoz. Baina, Eibar, itsa-soan nibeletik 121 metrora dago eta Ermua 164ra. Urko barriz, 791 metrora).

Gaiñera, Ojanguren ez zan poliki ibiltzen ziranetakoa. Beti, okerkerixia eginda anka-jokuan ihesik doian mutiko baten pare, prixaka ebillen.

Untzagako plazatik hola zoian batian, bere edade inguruko agura batek esan zeutsan:

—Ikasik polikixago ibiltzen!

—Euk ikasik bixkorrago ibiltzen!

Eta baztarrik ba ete da bera eldu bakorik? Ez Euskal-Herrian. Sarri pasau zituan gure mendiak, alde batetik eta bestetik, oiñaz. Hainbesterañok eze, ez zan posible bera inork ezagutzeka pasatzia. Berakin ibili giñanok ondo dakigu hori.

Behin, “La Voz de España”ko redaziñora paketetxo bat eldu zan. Zafraditxo bat egin ondorean, izketan Eibar aitatu zalako edo atso zahartxo batek esan zeutsan, dirala urte asko ibilli zala han beste eibartar bat be fotografiak eta ataratzen; eibartarra Ojanguren zala. Zelan ez zan ba arrittuko atsotxua, esan zeutsanian bera zala Ojanguren. Orduan, andrihorrek esan zeutsan: “Baiña, zu ez zara izango aintziñako Ojanguren; zu, haren semeren bat izango zara”.

Behin, “La Voz de España”ko redaziñora paketetxo bat eldu zan. Zafra-tik, etorren. Antiajuak ziran. Guadarramako mendietan billatutakoak, eta an-

tiajuen azalean (estalgarrian) "Eibar" ipintzen ebalako, beste barik, "La Voz" era bialdu zittuen Ojangurenen izenez. Usterik, beste inor ezin neikiala izan inguru haretan ibilli zeikiana. Eta, egia zan; iru aste lehenago han galdu zittuan Ojangurennek bere antiajuok.

Guardasolakin juaten zar mendira, egualdi seguru ez ebanian ikusten. Behin, bisperatik joan zan Bilbora. Bixamonian Gonekogortara igotzeko asmuz. Baina, bixamonian, egualdi zoragarriak urten eban. Pagasarri inguruak jentez beterik ebizen, eta danak gelditzen ziran berari begira, barrez; eguzki ederra eta guardasola besuan zeroiala ikusirik. Ganekogorta gaillurrera ixa allegauan, berutz etorren batek: "Compadre; lleva usted paraguas y no va a llover."

—¡Ah!, pero esto no es paraguas.

—...¿Cómo?

—No, no es paraguas, es un "guardasol".

Beste behin, jakin eban Arantzazun prozesiñua egoala eta China-tik etorri barri zan Aranburu obispua be han izango zala. Juan zan, okasiñua aprobetxatzaera, fotografia berezi bat atartzeko (fotografia "ale-takua" Ojangurenen argotean). Baiña, osteria aprobetxatuaz, mendiren batera igo bihar ba, eta juan zan Aizkorriko gaillurrik gorenetakoa batera.

Bueltan, arratsalde erdian, prozesiñuhori ixa amaiturik billatu eban. Obispua aurretik zala, bere jantzi apain guztiakin, elizarutz zoiatzela, Denporarik ez cukanez, procesiño guztiaren aurrekaldean ipiñiaz, esan eban: "Alto"! Eta gelditu zittuan. Gero, bere komenentziatara fotografiak atara ondorean: "Aurrera!", agindu eutsen. Holako "aita santurik".

Baiña, guztia ez zan hor amaittu. Donoskiako doktor Bidaur —lehenago "Montañeros Vetustos"eko mendizalea zana— Chinara misionero joan zanean, eta periodikuak ekarri Aranburu obispoak sortaldeko lurretan egin zeutsan buenajería. Ez bat eta ez bi; Ojangurennek alkarri eskua emonaz ipini zittuan eta, egun gutxira, "La Voz de España"k ekarren: "El doctor Vidaur, recibido por monseñor Aramburu, en China. Foto Ojanguren". Bidaur mendizale jantzita, jersiagaz eta esku batian makilla ebala, eta, Aranburu, oso dotore, mitra eta bakuluagaz.

Ojanguren ez eukan tele-foto eta tele-bisiño biharrik.

Altzetan semeak mutiko zirala, zientzia naturalen liburu bat ikusten eren. Hango dinosaurio, brontosaurio, estegosaurio eta holako animalia ikaragarriak ikusteaz arriturik ei eren. Irudiok fotografia itxura eukenez, mutikoetariko batek esan ei zeutsan aitari:

—Aita, denbora haietan nola eta norek atera zezakean fotografia?

Eta aitak erantzunez:

—Fotografia azpikaldean ez ahal dik jartzen "Foto Ojanguren"?

(1) El que suscribe, se ha ocupado en diversas ocasiones sobre aspectos de la vida de I. Ojanguren, principalmente en PYRENAICA de 1967, núm. 1, págs. 41-47. Y de sus anécdotas en la revista euskérica «EGAN» (1966, págs. 92-95), y que aquí se vuelven a publicar, con adiciones, en su castizo euskera eibarrés, para conservar mayor fidelidad en el contenido del anecdotario.